



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prentsa oharra

Bizkaiko Batzar Nagusien Iraskunde Batzordean gaur izandako bozketen emaitzak

Bizkaiko Batzar Nagusien Iraskunde Batzordean gaur, goizeko hamaiketan hasita, eztabaidatu diran gaien artean hurrengoak izan dira: Gernika-Markina eskualde egituraren Lurralde Zatiko Plana, Marokogaz izenpetu beharreko arrantza akordio barria, Barakaldoko Rontegiko egoera urbanistikoa, Udalnet webgunea eta Franco diktadoreari bere garaian emondako sariak itzultzea eskatzea.

Gernika -Markina eskualde egituraren Lurralde Zatiko Plana.

Lehenengo aztergaia izan da Bildu Taldeak aurkeztutako eskaria, Batzar Nagusiek eskatu deioen Foru Aldundiari bertan behera izteko Gernika-Markina eskualde egituraren Lurralde Zatiko Plana. Batzarkide-Talde horrek gura izan dau “eztabaida eta prozesu parte-hartzaile, publiko eta gardena edegitea” eta “LZP ezbardin bi egin daitezala, bata Busturialdean eta bestea Lea-Artibain.” Ekimena bertan behera geratu da aurka bozkatu dabelako Batzar Nagusietako gainontzeko Taldeek (Euzko Abertzaleak taldeak, Socialistas Vascos Taldeak eta Bizkaiko Talde Popularrak).

Saharako adierazpena.

Jon Sánchez Batzordeburu jaunak Adierazpen bat irakurri dau, ahobatez onartu dana, eta horren bitartez, Euzko Abertzaleak taldeak proposaturik, eskatu egin jake erakunde europarrei eze Marokorekin arrantza akordio barria negoziatzen baldin bada, herrialde honek nazinoarteko legeek autortzen deusiezan lurralde uretara mugatu dedila, eta beren-beregi kanpoan itxi dagizala Mendebaldeko Sahararen lurralde urak, horreek beste negoziaketa beten sartuko litzatekezalako. Era berean, Espainiako Gobernuari eta Europar Erakundeei eskatu jake Nazino Batuen markoan aktiboki bultzatu dagiela Mendebaldeko Sahara deskolonizatze konponbide “bidezko, iraunkor eta nazioarteko legeriaren arabera bilatzeko ekimena”.

Barakaldoko Rontegiko egoera urbanistikoa.

Iraskunde Batzordeak hurrengo eztabaidatu dauen ekimena izan da Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena, non babesa emon gura jaken Barakaldoko “Udalagan fidatu ziran ehundaka barakaldarri, arazoa konpondu beharrean, gaur egun etxebizitza barik eta epe laburrean izateko esperantza barik dagoz eta”. Horretarako, bada, Barakaldoko Udalari eskatu egin jako “zozketatutako etxebizitzaren adjudikatarioei itzuli deiezala 161 etxebizitzaren erreserba moduan ordaindutakoak, eragindako kalteordain eta guzti itzuli be” eta “behingoan eta behin betiko bideratu deiela 21 familiei jabetzako etxebizitza”. Euzko Abertzaleak Taldeak zuzenketa-eskea aurkeztu dau, hain zuzen be eskatzeko etxebizitzaren adjudikatarioek daukien eskubidea bermatzea, etxebizitzok erosteko aukera hori mantentzeko edo eskubide horri uko



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

egiteko, halan baderitxe. Talde Popularrak onartu egin dau zuzenketa-eskea, eta horri esker ekimena onartu egin da. Bildu Taldea abstenidu egin da eta Sozialistas Vascos Taldeak aurka bozkatu dau.

Udalnet

Horren ostean, Udalnet webgunearen sarrera mugatuko datuetara sarrera askea izateari buruz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena eztabaidatu da. Horren bidez, Aldundiari eskatu jako egin dagizala egin beharreko aldaketak herritar guztientzako sarrera askekoa izan daiten Bizkaiko udalen ganeko ekonomia eta finantzako informazioa, gaur egun informazio hori sarrera mugatu/datu babestu moduan agertzen da-ta www.bizkaia.net/Udalnet web-gunean. Euzko Abertzaleak Taldeak aurka bozkatu dau, eta beste Talde guztiek alde; beraz, ekimena onartu eta hor eskatu da edonork ikusteko modukoa izatea, besteak beste, kitatutako udal aurrekontuei eta udalen zerga-zamari buruzko informazioa.

Franco diktadoreari emondako sariak.

Gai-zerrendako azken aztergaia, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutakoa, izan da Aldundiak Estaduburutzari eta Estaduaren Ondareari eskatzeko bilatu dagiela non dagozan Bizkaiko Aldundiak Francisco Franco diktadoreari 1950. urtean eta 1962. urtean, hurrenez hurren, emondako harribitxien domina eta esmaltatutako triptikoa, eta behin non dagozan argitu ondoren, itzuli deiozala Foru Aldundiari, bere garaian emon izanaren erabagiak balio barik itxi diralako, daukien balio eta interes historiko-artistikoaren araberako erabilera emon ahal izateko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

Resultados de las votaciones efectuadas hoy en la Comisión Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia

El plan territorial de Gernika-Markina, el acuerdo de pesca con Marruecos, la situación urbanística generada en Rontegi (Barakaldo), la página web Udalnet y la retirada de honores al dictador Francisco Franco, han formado parte del abanico de temas que se han abordado hoy, a partir de las 11 de la mañana, en la Comisión Institucional de las Juntas Generales de Bizkaia.

Plan Territorial Parcial Gernika-Markina

El primer asunto del día ha sido la petición del Grupo Bildu para que las Juntas instaran a la Diputación Foral a que deje sin efecto el Plan Territorial Parcial de ordenación de la comarca de Gernika-Markina. Este grupo pretendía que se abriera un proceso "participativo de debate, público y transparente" para la elaboración de un nuevo plan que recogiera dos PTP distintos "uno para Busturialdea y otro para Lea-Artibai". La proposición ha sido rechazada por la negativa del resto de grupos de la cámara (Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno).

Declaración por un nuevo acuerdo pesquero con Marruecos

Seguidamente, el Presidente de la Comisión, Jon Sánchez, ha leído una Declaración, aprobada por unanimidad por todos los grupos, en la que, a iniciativa del Grupo Nacionalistas Vascos, se solicitaba a las instituciones europeas que en el próximo acuerdo pesquero con Marruecos se negociara exclusivamente el uso de las aguas internacionales reconocidas por la legalidad internacional y se excluyeran del mismo las aguas del Sahara Internacional, que deben negociarse de forma separada. Al mismo tiempo se pedía al Gobierno de España y a las instituciones europeas una solución "justa, duradera y ajustada a la legalidad internacional" del proceso de descolonización del Sahara Occidental.

Situación urbanística en Barakaldo

Posteriormente, la Comisión Institucional ha debatido otra proposición No de Norma del Grupo Popular Vizcaíno que pretendía proteger el "desamparo en la que se encuentran cientos de baracaldeses que confían en el Ayuntamiento para dar una solución a sus problemas de vivienda en el barrio de Rontegi y que hoy se encuentran, sin casa y sin perspectivas cercanas de tenerla", según aparece en el escrito. Por ello, solicitaban que se procediera al realojo definitivo en régimen de propiedad de 21 familias baracaldesas y a la restitución a los adjudicatarios de 161 viviendas, de las cantidades abonadas en concepto de reserva y a la indemnización por daños y perjuicios. El Grupo Nacionalistas Vascos ha presentado una enmienda para solicitar que los adjudicatarios de las viviendas pudieran "optar por mantener su opción de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

compra de las mismas, o renunciar a las mismas", si así lo deseaban, enmienda que ha sido aceptada por el Grupo Popular, lo que ha servido para aprobar la iniciativa. Por su parte, el Grupo Bildu se ha abstenido y los Socialistas Vascos han votado en contra.

Udalnet

A continuación, otra propuesta del Grupo Popular Vizcaíno que pretendía que las Juntas Generales instasen a la Diputación a que procediera a realizar los cambios necesarios en la página www.bizkaia.net/Udalnet para permitir el libre acceso a toda la ciudadanía de los datos de información económica-financiera municipal que en la actualidad se encuentran con acceso restringido, ha recibido la aprobación de la Cámara con el único voto negativo del Grupo Nacionalistas Vascos. Los demás grupos de la cámara han aprobado la iniciativa con la que pretenden que sea de acceso libre la información municipal referida a los presupuestos liquidados y a la presión fiscal de cada municipio, entre otras cuestiones.

Condecoraciones de Franco

Como último punto del orden del día, a iniciativa del Grupo Popular Vizcaíno y por unanimidad se ha aprobado también que la Diputación Foral inste a la Jefatura del Estado y al Patrimonio Nacional a que localicen la medalla de brillantes y el tríptico esmaltado entregados por la Diputación de Vizcaya en 1950 y 1962, respectivamente, al dictador Francisco Franco como "Primer Vizcaíno de Adopción y Honor", y a que sean devueltos a la Diputación Foral para darles el destino adecuado según su valor e interés histórico-artístico, al haber sido anulados los acuerdos que justificaron tal entrega.